



Solozar

etxebizitza

Aldakerak: Amurizana
Ahozkoa:



43° 11' 28"

2° 35' 6"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Alboan duen *Sagasti* (**Ikus Sagasti**) txaleta moduan, XX. mendeko 80ko hamarkadan dago eraikita txalet hau, Besoita alderantz doan bi-dearen behealdean. *Solozar* lurretan eraikitzean, modo zuzenean soroaren leku-izena aprobetxatu zuten eraikina izenda-tzeko.

Etxe berria da, nahiz eta baserri tradizionalen elementuak izan, oso era berezian erabili dira. Hala, pisu bi eta ganbaraduna da, fatxada nagusia guztiz simetrikoa daukana. Beheko pisuan ohiko hiru gorputzak dauzka: alboetako leihoak

eta erdian, egurrezko dintelak eutsia, atartea. Goikoan, berriz, alderik aldeko balkoia, hormigoizko zorua eta egurrezko karelduna. Eta gorengoan, ganbaran, bi isuriko teilatuaren angelua aprobetxatuz, barneko balkoia. Hormak luzituta baditu ere, zokalo gisa eta kantal guztietan harlangaitza erabili dute eta leihoburu denak egurrezkoak ditu.

toponimia

Aparteko azalpenik behar ez duen izena osagaiak gardenak direlako solo "ereiteko lur eremua" eta zahar. Solo Bizkaierazko hitza da eta soro, berriz, beste euskalkietan ageri dena. Nahiz eta gaur egun jende askok nahasi soroetan ereiten zen garia, artoa edo patatak eta baratzean, berriz, lapikokoak (indabak, porruak, piperrak...).